

IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

Basoko kondairak eta albisteak
Basajaun eta basoko lagunak



Lehen Hezkuntzako 2. ziklorako materialak
Hizkuntzen Trataera Bateratua

IRAKASLEENTZAKO ORIENTABIDEAK

Proiektuaren justifikazioa

Komunikazio egoeraren deskribapena

Oinarrizko gaitasunen garapena

Helburu orokorrak

Helburu didaktikoak

Ingurune eta hizkuntzetako edukiak

Ebaluazio adierazleak

Unitate didaktikoen orientabideak

Sekuentzietarako argibideak

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Azken hamarkadetan Lur planetaren degradazioa gero eta azkarragoa da. Uste dugu ingurumenaren hezkuntza txikitatik hasi behar dela, gure jarrera eta ekintzek ingurumenean eragin zuzena dutelako.

Proiektu hau Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleengan ingurumen hezkuntza jorratzeko garatuta dago. Basoaren hiru ikuspuntu hauek landu dira:

ekosistema bezala eta bertako elementuen elkarreragina

baliabide-iturria eta

gune kaltetua.

Basoa ekosistema aberatsa da bere elementuen arteko erlazioak ikasteko eta aproposa ingurumenarekiko errespetuzko jarrerak bultzatzeko. Bestetik betidanik izan da txoko liluragarria, bertan betiko kondaira eta ipuinen sorlekua eta, gaur egun berri askoren iturburua. Irudimena eta sormen literarioa garatzeko paregabeko lekua.

Unitate didaktiko honen helburua narrazio-testuak lantzea da. Testu-tipo hori, bai ahozkoan bai idatzizkoan, ikasleen bizitzan ageri da oso umetatik, eskolan zein euren egunerokoan. Umeek narrazioa bizi dute eskolara hasi baino arinago, helduekin eta beste umeekin komunikazioa burutzeko istorioak, ekintzak edo eguneroko gertakarien narrazioak erabiliz. Eskolara sartzen direnean, narrazio-testuekin beteriko mundua aurkitzen dute. Esan beharra dago, hizkuntza ikasgaietan eta beste hainbat arlotan egingo duten lanaren zati handi bat burutzeko narrazioak erabiliko dituztela, bai literarioak bai bestelakoak.

Ezinbestekoa da narrazio-testuen erabilera eta irakurmen-ohiturak garatzea bat datozela aipatzea. Narrazioaren mekanismoak ondo ezagutzen dituen eta irakurmenarekin gozaten duen ikaslea, seguruenik, kulturadun munduan integratzeko moduko heldu irakurzale bihurtuko da.

KOMUNIKAZIO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Proiektu honetako azken xedea basoari buruzko jai bat antolatzea izango da. Jaialdian kondairak irakurriko dituzte, albisteak kondairekin erlazionatu, basoari buruzko horma irudiak azaldu, kantatu, dantza egin... eta hori guztiori ikasle txikiei zuzenduta egongo da. Basoa zentzu zabalean jorratuko da: alde batetik ingurumenari lotutako alderdia eta bestetik kondaira eta albisteen kokalekua.

Komunikazio Egoera	Komunikazio Egoera	Komunikazio Egoera
<p>Gaia: basoa: ekosistema modura, onura eta funtzioak. Mitoak eta kondairak.</p> <p>Igorlea: 2. zikloko ikasleak</p> <p>Hartzailea: ikasle gazteagoak (1.zikloa)</p> <p>Kanala: idatziz eta ahoz</p> <p>Asmoa eta helburua: ipuina kontatu (irudimenaz.)</p> <p>Argitalpen lekua: ikasgela</p> <p>Erabilpen eremua: Hizkuntza Literaturan.</p> <p>Testu tipoa: narrazioa</p> <p>Testu generoa: kondaira</p>	<p>Tema: el bosque: ¿qué es? explotación de los recursos y las amenaza que sufre.</p> <p>Emisor: grupo de 2º ciclo.</p> <p>Receptor: alumnos más jóvenes (1º ciclo)</p> <p>Canal: escrito y oral</p> <p>Intención y finalidad: narrar una noticia (de manera objetiva)</p> <p>Lugar de comunicación: clase</p> <p>Ámbito: La lengua en los medios de comunicación</p> <p>Tipo de texto: narración</p> <p>Genero textual: noticia</p>	<p>Gaia: basoa: bizidunak</p> <p>Igorlea: 2. zikloko ikasleak</p> <p>Hartzailea: ikasle gazteagoak</p> <p>Kanala: ahoz</p> <p>Asmoa eta helburua: abesti narratiboak kantatu eta koreografia.</p> <p>Argitalpen lekua: ikasgela</p> <p>Erabilpen eremua: Hizkuntza Literaturan.</p> <p>Testu tipoa: narrazioa</p> <p>Testu generoa: abestiak</p>

Erabilitako testu generoak:	E/U	A/I	Erabilitako testu generoak:	E/U	A/I	Erabilitako testu generoak:
Kondairak	U/E	I/A	Noticia	U/E	I	
Azalpenak	U	I	Cómic	U	I/Gr	
Albistea	U	I	Leyenda	U	I	
Deskripzioa	U/E	I	Definición	U/E	I	
Ipuina	U	I	Canción	U	A	
Galdera/erantzuna	U	I/A	Pregunta/Respuesta	E	I/A	
Abestia	U	A				

Lantzen diren narrazio testuaren ezaugarriak:

Testuaren asmoa kontatzea da: entretenitzea eta informatzea.

Narrazioaren elementuak: pertsonaiak, lekua, denbora eta gertaerak.

Gertaerak ordenatzeko era desberdinak: denbora eta garrantziaren arabera.

Denbora antolatzaileen erabilera.

OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENA

Erkidegoko curriculum berrian argi adierazten den legez, oinarrizko hezkuntzaren helburua honako hau da: pertsona helduak heztea, euren ibilbide akademiko edo profesionalean aurkituko dituzten edozein egoerari aurre egiteko gai izango diren pertsonak heztea. Horretarako, eskolaldian landuko diren irakasgai guztiek, hizkuntza-irakasgaiak barne, oinarrizko zortzi gaitasunak garatzeari lagundu behar diote, gaitasun horiei esker, pertsonaren errealizazioa, garapena, herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortuko baitira.

Curriculum berri horretan haxe jotzen da oinarrizko gaitasuntzat: “jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzari egokituia, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrekotzat jotzen dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko”.

Dakigunez, hizkuntzek garatzeko balio dute curriculum berriak ikasleen garapen pertsonal eta intelektuala lortzeko beharrekotzat jotzen dituen oinarrizko gaitasun guztiak “tresna pribilegiatuak baitira komunikatzeko, mundua irudikatzeko, gizartean txertatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko”.

LANDUTAKO OINARRIZKO GAITASUNAK	Zein jardueretan	
	Euskara	Gaztelania
Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna	4, 5, 6, 8, 11, 12	0, 1, 6, 7, 13, 14, 15,
Ikasten ikasteko gaitasuna	1-17	1-17
Matematikarako gaitasuna		
Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna	1-17	1-17
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	8	16
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna	1-17	1-17
Giza eta arte-kulturarako gaitasuna	0, 1, 2, 7, 10,	4,
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	0, 12, 14, 16, 17	0, 15, 16, 17

HELBURU OROKORRAK

Hizkuntza

1. Ahozko zein idatzizko narrazioak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio egoera berriei aplikatzeko.
2. Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, narrazioak ekoitzi ahal izateko.
3. Hizkuntzen erabilpen-sistemei eta arauari buruzko gogoeta egitea, hizkuntzak ulertzeko eta sortzeko prozeduren harian.
4. Azalpen eta narrazio testuak ulertuz irakurtzea ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak.

Ingurune

1. . Talde-jardueretan parte hartzea, betiere erantzukizunaz eta era konstruktiboan jokatzuz; besteei lagunduz eta elkartasunez jokatzuz.
2. Natura eta kultura-ingurunearen elementu batzuk identifikatzea; ingurunearen antolaketa, ezaugarriak eta harremanak aztertzea eta ingurumenari zein bizi-kalitateari buruzko erabakiak hartu eta ulertzea.
3. Gizakiak ingurunean egindako esku-hartzeen zenbait adierazpen aztertzea, eta horiek iraunkortasunaren parametroetatik kritikoki balioestea, betiere, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatzearen eta berreskuratzearen, eta kultura-ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko.
4. Berezko nortasuna eratzea, norberaren lorpen-, esfortzu- eta hobetze-motibazioa sustatuko duten estrategien alde eginez, gizaki autonomo eta besteekin harremanean ari den gizartekide gisa garatzeko.

Tutoretza

1. Ingurumenaren egoeraz ohartzea eta ingurune hurbila —animaliak zaintzea eta errespetatzea ere barne dela— zaintzeko eta errespetatzeko jarrera arduratsuak indartzea, ingurunea erantzukizunez kudeatzen parte hartzeko.





HELBURU DIDAKTIKOAK


1. Baso ekosistemako elementu nagusiak identifikatzea; ingurune horretako antolaketa eta elkarrekiko erlazioak aztertzea.
2. Basoaren funtzioak ezagutzea.
3. Basoko baliabideak balioestea.
4. Erabilera desegokiak sor ditzakeen problematikaren kontzientzia hartzea eta natura zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzea.
5. Basoko elementu esanguratsuez gogoeta egitea, pentsatzea, hipotesiak adieraztea eta ondorioak ateratzea.
6. Gaiari buruz ikasitakoa ahoz azaltzen jakitea.
7. Ahozko nahiz idatzizko testuak ulertzea.
8. Kondaira eta albistearen narratzeko asmoa identifikatzea.
9. Kondaira eta albistearen elementuak identifikatzea, egitura alderatzea eta ekoizpena idazterakoan erabiltzea.
10. Gertakizunak kontatzeko era eta ordena alderatzea eta behar diren denbora antolatzaileak idazterakoan erabiltzea.
11. Puntuazio markak ondo erabiltzea.
12. Albisteak objektibotasunez eta kondairak irudimenez kontatzea.
13. Esaldiaren osagarriei buruzko hausnarketa egitea (aditza eta izena).
14. Gogoz parte hartzea testuaren plangintza egiteko, idazteko eta berrikusteko talde-jardueretan.
15. Gero eta hobeto idaztea kohesio, koherentzia eta zuzentasun oinarrizko arauak betez.
16. Lanaren aurrean norbere dohainak eta zailtasunak antzematea eta irtenbideak bilatzen ikastea.
17. Talde lanean erantzukizunez aritzea eta elkarrizketetan harira datozen galderak eta iruzkinak egitea.
18. Une atseginak igarotzea kondairak irakurriz eta idatziz.

INGURUNE ETA HIZKUNTZETAKO EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Kondaira eta albiste testu generoaren funtzioa</p> <p>Kondaira eta albiste testu generoaren ezaugarriak:</p> <p style="padding-left: 40px;">Egitura</p> <p style="padding-left: 40px;">4 W (Nor, Zer, Noiz, Non)</p> <p>Denbora antolatzaileak</p> <p>Aditza eta izena</p> <p>Gaiari loturiko hiztegia</p> <p>Basoa: kontzeptua, elementuak, funtzioak eta ustiaketa.</p> <p>Basoko ekosistemaren osagaiak: bizidunak (landaretza eta animaliak), bizigabeak.</p> <p>Basoek ingurumenari dakarzkieten onurak</p> <p>Basoek pairatzen dituzten mehatxuak.</p> <p>Euskal Herriko basoekin loturiko mitoak eta kondairak.</p>	<p>Ikasteko testuen ulermena</p> <p>Narrazio testuen egitura.</p> <p>Ulermen estrategiak</p> <p>Narrazio testuaren planifikazioa eta ekoizpena</p> <p>Aditzak eta izenak antzematea</p> <p>Komunikazio egoera ezberdinetan parte harzea</p> <p>Narrazio testuen ekoizpena</p> <p>Hizkuntzen arteko transferigarritasunaz hausnarketa.</p> <p>Irakurketa ozena</p> <p>Albisteen elementu grafiko eta paratestualen erabilpena</p> <p>Gogoetarako gaitzat hartzea norberaren ikasketa, lanaren antolaketa, akatsa prozesu horren partetzat hartu beharra, eta nork bere buruari egindako zuzenketak eta ebaluazioa.</p> <p>Puntuazioa eta ortografia oinarrizko arauak zuzentasunez erabiltzea</p>	<p>Ekoizpenen aurkezpen txukuntasuna zaintzea.</p> <p>Basoa ondare naturala eta kultural garrantzitsu bezala balorazioa.</p> <p>Basoen zainketaz ardura.</p> <p>Literatura-testua komunikazio-bidetzat, bestelako munduak ezagutzeko iturritzat eta ongi pasatzeko aitzakiatzat hartzea.</p> <p>Taldeko lanetan partaidetza.</p>

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

		Eus	Gaz
	1. Ea ahozko narrazioetan esanahi orokorra hartzen duen.	1. jarduera,6. jarduera	
	2. Ea idatzizko testuaren ideia nagusiak antzematen dituen..	5. jarduera, 7. jarduera	
	3. Ea kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen dituen testuko ideia nagusiak erabilia	7. jarduera	
	4. Ea informazio esplizitua aurkitzen eta hautatzen duen, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.	10. jarduera	
	5. Ea kondairaren eta albistearen narratzeko asmoa antzematen duen.	8.jarduera	
	6. Ea kondairak irakurtzen dituen une atseginak igarotzeko.	orokorrean	
	7. Ea behar bezain ongi intonatu eta ahoskatzen duen.	13. jarduera eta azken ekoizpena	
	Ea aurrez planifikazio gidatua eginda, ahozko narrazio erraz eta laburrak sortzen eta azaltzen dituen argi, behar bezala antolatuta eta ikusizko euskarriak erabilia.	11. jarduera	
	8. Ea, jarraibideak beteta, eskemaren bidez planifikatzen duen testuaren edukia, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta idatzi beharreko testuaren egitura aintzat hartuta.	12. jarduera	
	9. Ea kondairari eta albisteari dagozkion elementuak eta erregistroa erabiltzen dituen.	12. jarduera	
	10.Ea paragrafoen bidez antolatzen duen informazioa.	12. jarduera	
	11.Ea zenbait denbora antolatzaile erabiltzen duen, testuko ideiak eta zatiak lotzeko.	12. jarduera	
	12.Ea gramatikako eta ortografiako oinarriko arauak betetzen dituen.	12. jarduera	

13.Ea argi eta txukun aurkezten duen testua.	12. jarduera	
14.Ea bere eta besteren testuetako akats nagusiak identifikatu eta zuzentzen dituen, jarraibideak erabilia.	12. jarduera	
 15.Ea erantzukizunez aritzen den ikasgelan, taldeko zereginetan, erabakiak hartuz, iritziak emanez eta gainerakoenak errespetatuz.	orokorrean	
16.Ea egiten duen elkarrizketaren harira datorren galderarik edota iruzkin egokirik.	Hausnarketa ariketetan.	
17.Ea hizkuntzen sistemari buruz hausnarketa egiten duen egoera desberdinetan erabiltzeko.	6. jarduera, 7. jarduera	
18.Ea bere aurrerapenen balorazio xumeak egin, eta hobeto ikasteko lagungarri dituen estrategien adibideak jartzen dituen.	Lan hitzarmenean	
19.Ea, laguntza jasota, hizkuntzetako batean erabilitako estrategiak erabiltzen dituen beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.	12. jarduera	
Ingurune		
21. Ea sailkatzen dituen izaki bizidun eta bizigabeak irizpide zientifiko sinpleei jarraituz; adibidez, elikadura mota.	11. jarduera	
22.Ea ikasitakoa ahoz eta horma-irudien bidez azaltzen dakien hitz espezifikoak erabiliz.	11. jarduera	
23.Ea ezagutu eta balioesten dituen basoaren funtzioak eta horien eragina ingurumenean.	11. jarduera	
24.Ea antzematen dituen gizakion bizimodu eta jarduerak ingurunean dituzten eragin positibo eta negatiboak eta alternatibarik proposatzen duen inpaktua murrizteko.		
25.Ea baliabide naturalen erabilera garrantzitsuenak identifikatzen dituen eta erabilera horien abantailak eta desabantailak ezagutzen dituen.		
26.Ea ondasun batek izandako prozesua identifikatzen duen sortzen denetik kontsumitzen den arte.		

UNITATE DIDAKTIKOEN ORIENTABIDEAK


Hasteko, unitate hau proposamen irekia dela esan behar da; hau da, erabili dugun materiala (testuak, teoria...) eta proposatutako jarduerak kendu edo aldatu ditzake irakasleak, horrela uste badu. Unitatea erreferentziazko komunikazio-proiektutzat erabiltzeko sortua da, eta gelan erabili eta esperimintatu ostean egin daitezkeen hobetzeko aldaketak ongi etorriak izango dira.

Unitate honen helburua narrazio-testuak aztertzea eta erabiltzen jakitea da; horretarako, ikasleei eskatuko zaie gelan etxetik ekarritako kondaira eta albiste ugari ekartzea. Testu horiek proposatzen diren jarduera askotarako lagungarriak izango dira.

Ikasleei parte hartze aktiboa eskatzen zaie unitatean zehar, talde txikia lan egitea proposatzen zaie eta azken ekoizpenari buruzko proposamenak egin, eztabaidatu eta erabaki beharko dituzte, izan ere, lan egiteko metodologia honek ikaste esanguratsua eta izaera kritikoaren garapena baitakar. Prozesu guzti horretan irakaslearen lana orientatzaile eta laguntzailearena izango da.

Esan dugunez, proiektu honetan helburu erreala duen testu baten ekoizpena da proposatzen duguna; horretarako elkarreraginaren bitartez eta hizkuntza bera erabiliz, ikuspegi komunikatibotik abiatutako metodologia da nagusi unitate honetan, hauexek dira metodologia horren ezaugarriak:

- Benetako erabilera adierazten duten testuak aztertuko ditugu.
- Testuak ulertzeko eta ekoizteko jarduerak dira nagusi.
- Edukien aukeraketa eta sailkapena ataza komunikatiboaren araberakoa da.
- Benetako erabilera eta erabilera horren hausnarketari esker ikasiko dute ikasleek.
- Irakasleak euren ikasketa-prozesuaren parte hartzaile aktiboak dira.
- Ebaluazioa ikasketa-prozesuaren atal bat da.



L.H.ko Portfolioan erabiltzen diren ikonoen bidez islatu dugu jarduera bakoitzean garatzen den hizkuntza trebezia. Honela: ahozko ulermena, idatzizko ulermena, elkarreragina, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena.

UNITATEAREN AURKIBIDEA

BASAJAUN ETA BERE LAGUNAK	Euskal Herriko pertsonaia mitologikoak Ados jartzen	4 7
1. KONDAIRAK ETA HAIEN PERTSONAIAK	1. Euskal Herriko kondairak 2. Pertsonaiak	9 17
2. BASOA, BIZILEKUA	3. Non bizi dira Euskal Herriko pertsonaia mitologikoak? 4. Goazen basora! 5. Basoa ekosistema da	18 19 22
3. ZER GERTATZEN DA BASOAN?	6. Zer gertatzen da kondairetan? 7. Zer gertatzen da basoan? Elikakatea 8. Gertatzen dena kontatzen	27 36 43
4. BASOA, BIZILEKUA BAINO GEHIAGO	9. Kondairatik albistera 10. Basoaren onurak	47 50
5. JAIALDIA	11. Jaialdia prestatzen 12. Kondaira idazten 13. Idatzitakoa irakurtzen 14. Jaialdia 15. Eta azkenean...	61 64 66 67 69

SEKUENTZIETARAKO ARGIBIDEAK

Hemen aurkezten den materiala zehazten diren jarduerak garatzeko argibide didaktikoak dira. Proiektu osoan bezala, beste batzuren artean proposamen bat da.

“Basajaun eta basoko lagunak” euskara arloan garatzeko unitate honek, esan dugun bezala, kondaira genero narratibo bezala eta basoa ekosistema bezala lantzea du helburua.

Ikasleei azken xede bezala basoari eta bertan bizi diren pertsonaia mitologikoei omenaldi bat egitea proposatzen zaie. Kondaira bat berridatzi beharko du talde bakoitzak eta gaztelanian kondaira hori albiste eraldatu beharko dute elkarketa joko bat egiteko ikaskide gazteagoentzat.

Sekuentzia bakoitzean hizkuntza eta ingurune lotu nahi dugu.

0. SEKUENTZIA.BASAJAUN ETA BERE LAGUNAK

Motibaziorako jarduera: Euskal Herriko pertsonaia mitologikoak

Helburua: Jarduera hau gaiari buruzko interesa sortzeko proposatzen dugu.

Ibilbidea: Deskripzioak eta irudi batzuk eskaintzen ditugu pertsonai mitologiko eta kondairei lehenengo hurbilketa egiteko. Horietaz dakitena azaleratu galderak eginez:

Benetako pertsonaiak dira?

Nondik datorkio izena Basajaunari?

Ezagutzen dituzten ipuinetako pertsonaiak bezalakoak dira?

Kondaira zer den ezagutzen dute?

Kondairarik ezagutzen dute?

...

Kondaira zer den azaldu ahal zaie modu errezean. Hemen Wikipedian agertzen dena:

Leyenda es una narración oral o escrita, con una mayor o menor proporción de elementos **imaginativos** y que generalmente quiere hacerse pasar por verdadera o basada en la **verdad**, o ligada en todo caso a un elemento de la realidad. Se transmite habitualmente de generación en generación, casi siempre de forma **oral**, y con frecuencia experimenta supresiones, añadidos o modificaciones.

En **literatura**, una leyenda es una narración ficticia, casi siempre de origen oral, que hace apelación a lo maravilloso. Una leyenda, a diferencia de un cuento, está ligada siempre a un elemento preciso (lugar, objeto, personaje histórico etcétera) y se centra menos en ella misma que en la integración de este elemento en el mundo cotidiano o la historia de la comunidad a la cual pertenece. Contrariamente al **cuento**, que se sitúa dentro de un tiempo ("érase una vez...") y un lugar (por ejemplo, en el Castillo de irás y no volverás) convenidos e imaginarios, la leyenda se desarrolla habitualmente en un lugar y un tiempo precisos y reales; comparte con el **mito** la tarea de dar fundamento y explicación a una determinada cultura, y presenta a menudo criaturas cuya existencia no ha podido ser probada (la leyenda de las **sirenas**, por ejemplo)

Gelara kondairen liburuak ekartzea proposatu.
Adin horretarako aproposak badaude:
Euskal Herriko kondairak. Michel Cosem. Argitaletxea: Ibaizabal
Euskal leiendak Nafarroa.
Euskal leiendak Gipuzkoa.
Euskal leiendak Bizkaia
Euskal leiendak Araba.
Toti Martinez de Lezea. Argitaletxea: Erein

...
...

Taldekatzea: deskripzioa eta irudia lotu talde txikian egin, gero, talde handian elkarriketa sortu motibazioa eta interesa sortzeko.

Negoiaziorako jarduera: Ados jartzen

Helburua: ikasleen inplikazioa lortzea eta autorregulaziorako lehen pausoak ematea, bakoitzaren doainak eta zailtasunak hautemanen eta irtenbide posibleak aurkituz.

Ibilbidea: sasinegoiazio honetan, denon arteko elkarriketaren bidez proiektua definitu behar dugu. Ikasleek jakin behar dute zein izango den lana, zertarako egingo duten eta horrekin zer ikasiko duten. Unitatearen amaieran horixe bera izango da ebaluatuko dena, norberak bere buruari eta ikaskideei.

Ikasleen ekarpenak baliogarritzat hartu beharko dira. Irakasle bakoitzak neurtuko du zer aldatu, gehitu edo/ta kendu.

Taldekatzea: talde handian egiteko lana da, lan hitzarmena indibidualki egin baino lehen, denon artean ideiak eman, adibideak jarri...


Gaztelaniako unitatean proposatzen den bezala gaiaren kontzeptu sarea egin daiteke. Horrela ikasleen aurrezagupenak isla daitezke. *“Edukien sarea talde handian egiteak beste informazio batzuk ematen dizkigu taldearen beraren dinamikari buruz, esaterako, hitzez adierazteko gaitasunak, ikaskideen arteko entzute jarrerak,, dialogorako gaitasuna, taldeko lankidetzeta eta partehartze ohiturak, lehiakortasuna, elkartasuna, lidergoen banaketa, bazterketak...”*¹

Lagungarria izan daiteke Pedernales-Sukarrieta eskola saiakuntzarako zentroak egindako kontzeptu sare hau.

¹ (Hezkuntza-programa eta ebaluazio hezitzaile eredua, Pedernales-Sukarrieta eskola saiakuntzarako zentroa)

EDUKI SAREA.

Ondoko sarean islatzen dira Proiektuaren oinarria eratzen duten funtsezko edukiak eta beraien arteko loturak.



1. SEKUENTZIA: KONDAIRAK ETA HAIEN PERTSONAIK

Kondaira, ipuina bezala, narrazio testua dela errez ikusiko dute. Baina albistearekin ere alderatu behar dute eta narrazio testuen elementuak antzeman behar dituzte.

Pertsonaia mitologikoetaz dakitena azaleratu eta deskripzio bat egin behar dute kondairaren elementu bat lantzen hasteko.

1. jarduera. Euskal Herriko kondairak

Helburua: kondairaren asmo narratiboa eta generoen arteko desberdintasun batzuk hautematea.

Ibilbidea: kondaira eta albistea ondo ezagutzen duten beste narrazio testuarekin, ipuinarekin, alderatu behar dute.

Kondaira irakasleak, berak, irakurri ahal du. Horrela, azkeneko ekoizpena irakurri behar dutenez, intonaziorako ereduak izan daiteke. Ipuina eta albistea ikasleek irakurri ahal dute.

Edozein irakurketa egiten denean kontutan eduki beharko genituzke:²

IRAKURRI AURRETIK	Irakurtzearen helburua modu esplizituan adieraztea: irakurtzearen funtzionaltasuna
	Irakurtzearen helburu inplizituak eta esplizituak ulertzea <ul style="list-style-type: none">▪ Testuingurua: izenburua, euskarria, testu mota, forma (grafikoak...), data, autorea▪ Edukiaren eta formaren gaineko aurreikuspenak▪ Testuaren xedearekin zerikusia duten galderak
	Behar diren aurretiko ezagutzak aktibatzea <ul style="list-style-type: none">▪ Zer dakigu? Informazio gehiagorik badugu?
	Behar den hiztegia aldeztu aurretik irakastea
	Nola irakurriko den zehaztea: azpimarratuz...
IRAKURRI BITARTEAN	Era askotako aurreikuspenak egitea eta frogatzea
	Ulermen zalantzak argitzea
	Aldian behin edukia berrikustea edo laburtzea
	Testuaren edukia eta forma ebaluatzea, norberaren ezagutza eta logika erabiliz.
IRAKURRI ONDOREN	Ezagutza laburtzea
	Ezagutza jeneralizatzea

² Irakurketa plana Lehen eta Bigarren Hezkuntzan (Luis Iza Dorransoro) lizadorr@cfnavarra.es

Lehenengoz berdintasunetan erreparatu. Hirurak testu narratiboak dira gertaera bat kontaktzen delako.

Zein da testu hauen asmoa? → zerbait kontaktzea.

Gero, generoen arteko berdintasunaz hausnartu ostean, desberdintasunetan erreparatuko dugu. Narrazioak dituen 4 elementu hauetan ohartuko gara: pertsonaiak, gertaera, lekua eta denbora.

Nola kontaktzen den azken apartatuan, ikasleei utzi komentatzen (objektibotasun edo subjektibotasuna) nola adierazten duten.

Taldekatzea: Orokorrean, hausnarketak denon artean egin behar dira ez baitaukate horretarako trebezia handirik. Baina batzuetan, utzi behar zaie ere, talde txikian egiten.

2.-jarduera. Pertsonaiak

Helburua: Pertsonaia mitologikoei hurbiltzea eta kondairetan hasieran agertu behar den deskripzioa nola egiten den gogoratzea.

Ibilbidea: gogora ekarri ezagutzen dituzten edo liburuetan agertzen diren pertsonaia mitologikoak. Oso ondo ezagutzen duten Olentzero pertsonaia deskribatuko dute. Erabili horretarako beste batzuetan deskripzioak egiteko erabili diren kontrol zerrenda.

Taldekatzea: deskripzioa talde txikian egin dezakete.

2. SEKUENTZIA: BASOA, BIZILEKUA

Kondaira askok basoarekin nolabaiteko lotura daukate. Hizkuntza eta ingurune arloen arteko lotura eman nahi izan dugu sekuentzia honetan. Pertsonaia batzuen bizilekua da basoa. Aitzakia horrekin basoa ekosistema bezala ikusi nahi dugu. Bertan, faktore biotiko eta abiotikoen artean dagoen erlazio estua ikustaraztea da helburua. Sekuentzia amaieran, basoan gertatzen den ipuinik edo albisterik ezagutzen badute guztiei kontaktzea eskatzen zaie.

3. -jarduera. Non bizi dira Euskal Herriko pertsonaia mitologikoak?

Helburua: pertsonaia mitologiko batzuen bizitokiari buruzko aurrezagupenak azaleratzea.

Ibilbidea: baso hitza entzundakoan bakoitzari bururatzen zaiena banan-banan esatea eta idaztea. Hasi baino lehen argitu ez dutela ideia berdinak errepikatu behar eta pentsatzeko momentua hartu behar dutela.

Taldekatzea: talde handian.

4. jarduera. Goazen basora!

Helburua: irteera denon artean planifikatzea.

Ibilbidea. Edozein lan bezala planifikatu egin behar da. Jakin zer egin behar den, zertarako eta nola egingo duten. Garrantzi handia eman behar da parte-hartzeari, denon parte-hartzeari, besteen ideien errespetuari, eta lan demokratikoari. Basoa bisitatu eta gero irteeraren ebaluaketa egin daiteke.

Taldekatzea. Talde handian.

5. jarduera. Basoa ekosistema da.

Helburua: basoa ekosistemaren faktore biotikoak eta abiotikoak ezagutzea eta identifikatzea.

Ibilbidea: testua irakurri. Edukia ahoz labur bildu eta proposatzen den sailkapena egin, lehengo liburuan eta gero horma-irudi batean.

Basoan gertatzen den ipuina edo albistea ezagutzen badute kontatzea eskatu eta kontaketa horretan agertzen diren elementuetan erreparatu ea bizidunak edo bizigabeak diren

Taldekatzea: bakarka egin daiteke gero komunean jartzeko.

3. SEKUENTZIA:ZER GERTATZEN DA BASOAN?

Basoan ematen diren erlazioak kontatzeko era desberdinak daude, horrek testu tipo eta testu genero desberdinetara eramaten gaitu. Narrazio testu baten, azken xedea une atseginak igarotzea bada, subjektibotasuna eskatzen du. Sekuentzi hau subjektibotasun hori nola egiten den lantzeko pentsatuta dago.

Ingurune arloan elementuen arteko erlazio garrantzitsuena aztertuko dugu, elikadurarena: elika-katea.

6. jarduera. Zer gertatzen da kondairetan?

Helburua: narrazioan gertaeren hurrenkera hautematea eta albistearen ordenarekin alderatzea. Aditza, puntu eta jarraian eta puntu eta aparteren erabilera eta denbora antolatzaileen hausnarketa linguistikoa egitea.

Ibilbidea: kondaira irakurri (aurreko, bitarteko, geroko hausnarketa gogoratu), gertaerak nola dauden antolatuta eta nola kontatzen diren hausnartzeko hainbat ariketa proposatzen dira. Ikasleek ondorioetara heldu behar dira baina beti hausnarketaren bitartez.

Taldekatzea: hausnarketak talde handian.

7. jarduera. Zer gertatzen da basoan?

Helburua: ekosistema baten bizitzaren gurgilaren oinarria ulertzea. Erika-katearen arabera bizidunen sailkapena ulertzea.

Ibilbidea: dakitenetik ez dakitenera. Animalia batzuk nola elikatzen diren badakite, baina elika-katearen antolakuntzaz ez dira oraindik jabetu. Denon arteko elkarrizketaren bidez eta testua irakurriz elika-katearen funtzionamendua ulertzea errazago egingo zaie. Gero horma-irudia egin behar dute.

Taldekatzea: talde handian hausnarketa bestela talde txikian.

8. jarduera. Gertatzen dena kontatzen.

Helburua: Kondairaren azken xedea une atseginak igarotzea dela hautematea eta alderatzea albistearen informatzeko helburuarekin.

Ibilbidea: ikasleekin elkarrizketaren bidez kondairaren subjektibotasuna lantzeko ariketa batzuk proposatzen ditugu. Zaila da hitz egokiekin txikiei subjektibotasuna

azaltzea, horregatik, ondorioak ateratzerakoan taldeak kontutan hartuko ditu gelakideen ekarpen esanguratsuak .

Taldekatzea: talde handian.

4. SEKUENTZIA: BASOA, BIZILEKUA BAINO GEHIAGO


Basoak eskaintzen zituzten eta eskaintzen dituzten errekurtsioak (lehen eta orain) lotu nahi ditugu kondaira eta albistearekin. Gizakiak betidanik aurkitu ditu basoan bizitzeko baliabide ugari eta sarritan kondairetan islatu dira.gaur egun egunkarrietan basotik datozen albiste asko agertzen dira.

Alderatu kondaira eta albistearen artean informazioaren kokapena: albistean hasieran dagoena kondaira batean amaieran dago. Bide batez irakurtzeko intonazioa lantzeari ere tarte bat egingo diogu azken ekoizpena kondaira irakurtzea baita.

9. jarduera. Kondairatik albistera.

Helburua: kondairetan eta albisteetan informazioaren kokapena alderatzea eta erabiltzea. Ozenki irakurtzeko kontutan edukitzekoari buruz erreparatzea.

Ibilbidea: *Martin Txiki eta Jentilak I* (<http://aittu1.wikispaces.com/Bideoak?f=print>) audioa entzun eta informazioaren kokapenari buruzko hausnarketa gidatu. Azken xedea denez kondaira berridaztea eta gaztelanian albiste bihurtu, informazioa nola ordenatzen denari emango diogu orainarrantzia. Grafikoak daitezke lagungarriak.



Bide batez, entzuten dutenean konturatu behar dira nola irakurtzen duen narratzaileak eta markatu egia diren itemak.

Taldekatzea: talde handian.

10.jarduera. Basoaren onurak

Helburua: basoaren onuraz ohartzea eta ideia nagusiak atera.

Ibilbidea: proposatzen diren irakurketak eta ariketak egin. Ideia nagusiak atera behar dituzte horma-irudi batean biltzeko. Ideia horiek ere albisteetako titularrak bezala bildu daitezke.

Abestia eta asmakizunak ikas daitezke jaialdirako.

Taldekatzea: talde handian nahiz talde txikian.

5.SEKUENTZIA:JAIALDIA

Ikasitako guztia aplikatu behar dute orain. Helburua lana planifikatzearen garrantziaz ohartzea eta kontrol zerrendak erabiltzen ikastea da. Bai kondairari buruz bai basoari buruz ikasitakoa berriro gogoratu behar dute. Basoari buruz ikasitakoa horma-irudietan azaldu dute baina beste ariketa bat eskatuko diegu edukinak ebaluatzen: ahozko azalpena egitea proposatzen dugu. Bide batez lexiko berria hizkuntza bietan bereganatzea garrantzitsutzat jotzen dugu.

11.jarduera. Jaialdia prestatzen

Helburua: narrazioari buruz eta basoari buruz ikasitakoa gogoratzea.

Ibilbidea: Ahozko azalpena egiteko kontrol zerrenda bat proposatzen da. Beste unitate batean landu bada gogoratzea izango da lana, bestela irakasleak ikusiko du zenbat denbora daukan lan hau egiteko.

Taldekatzea: talde txikian.

12.jarduera. Kondaira idazten

Helburua: Lana planifikatzea. Korreferentzia lantzeko sinonimoak eta izenordeak erabiltzea. Kondaira idazteko kontrol zerrendak erabiltzea. Autoebaluaziorako kontrol zerrendak erabiltzea. Akatsak zuzentzea idazkia hobetzeko aukera bezala ikustea.

Ibilbidea: kontrol zerrenden erabilpena erakutsi. Lan honetan trebatuta ez badaude jarraitzeko pausuak ondo azaldu beharko zaie. Zuzentzeko beste talde bati edo irakasleari eman baino lehen bakoitzak kontrolatu behar du egindako lana, kontrol zerrendan jartzen duenarekin alderatu eta hobetu beharrekoa konpondu.

Taldekatzea: talde txikian.

13.jarduera. Idatzitakoa irakurtzen

Helburua: irakurtzeko intonazioa lantzea.

Ibilbidea: kondairak entzun dituztenean konturatu behar izan dira nola irakurri dituzte, bai irakasleak bai audioaren narratzaileak. Orain gogora ekarri behar dute eta kontrol zerrendarekin hobekuntzarako proposamenak egin behar dute taldeen artean.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikian.

14.jarduera. Jaialdia

Helburua: jaialdia planifikatzea. Besteekin adostea. Besteen iritziak onartzea. Norberaren ideiak ematea.

Ibilbidea: denon artean kontrolatu dena prest daukatela eta bakoitzaren lana zein izango den.

Taldekatzea: Talde handian.

15.jarduera. Eta azkenean...

Helburua: egindako lana ebaluatzea

Ibilbidea eta taldekatzea: talde txikian egin eta azkenekoa bakarka egitekoa da. Unitatean egindako lanaren inplikazioa, ikasitakoa...ebalatu behar dute.

EGUNEROKO JARDUERA DIDAKTIKOEN EBALUAZIOA

IZENAK	Partaidetza eta interesa	Ariketak egitea	Materialak eskura izatea	Lankidetzajarrera	Kontrol zerrenda erabili	Inoren iritziekiko errespetua

AZKEN EKOIZPENAREN EBALUAZIOA

Taldekideen izenak	Testuaren egitura	Elementuak agertzea	Gertaeren ordena Denbora antolatzaile	Testua kohesio, koherentzia, zuzentasunez egitea	Ekosistemaren elementuak eta erlazioak	Basoaren onurak	Aurkezpena: garbitasuna, irudiak...